

Zalduondoko Udalak Bolatokia eta bere ingurua zaharberritu ditu Europako Next Generation EU funtsekin

Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-plana (PRTR) — Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa

Zalduondoko Udalak arrakastaz amaitu du ondarea berreskuratze, turismoa modernizatzeko eta herria egokitzeko proiektua, bolatoki enblematikoaren inguruan. 2023tik 2026ra bitartean hainbat jardura-fase egin ondoren, multzoa finkatu egin da tokiko komunitatearen zerbitzura dagoen ekipamendu bizi gisa eta Donejakue Bideko bisitariak eta erromesak erakartzeko gune estrategiko gisa.

Proiektua NextGenerationEU tresna europarraren elementu nagusia den Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (MRR) esparruan finantzatu da, Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) bidez (14. osagaia, 14. inbertsioa, 3. azpineurria: "Turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarrien finantzaketa"). Hori gauzatzeko, 2023ko maiatzaren 4an lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Zalduondoko Udalak. Hitzarmen horren bidez, 150.000 euroko dirulaguntza eman zen, oso-osorik Europar Batasunak finantzatua.

Ondare-balio handiko espazioa



Zalduondoko bolatokiak babes berezia du, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue Bideko Monumentu Multzoaren barruan Babes Ertaineko Ondasun Kalifikatu gisa katalogatuta baitago. Bere garrantzi arkitektoniko eta historikoaz haratago, espazio honek antzinako garaietatik funtsezko funtzio soziala bete du auzokideeen topagune gisa. Esku-hartzearen helburua ez da soilik eraikina sendotzea eta zaharberritzea, baizik eta ekipamendu

bizi, irisgarri eta teknologikoki aurreratu bihurtzea, herritarren eta udalerrian dabiltzan turista eta erromesen zerbitzura.

I. fasea · Bolatokiaren birgaitze arkitektonikoa (2023)



Ondasunaren narriadura geldiarazteko eta haren balio historikoa berreskuratzeko, 2023an eraikina sendotzeko eta apaintzeko obrak egin ziren:

- **Fatxadak eta harlandua:** harlangaitzezko hormen berritze integrala, jatorrizko harriarekin bat datorren tonalitateko kare-mortero hidrauliko naturalarekin, hegoaldeko arkupeko hormatxoko harlandua eta sarrerako harrizko bankua konpontzearekin batera.
- **Zurezko egitura:** arrabotatzea, saneamendua eta estalkiko egurrezko egituraren eta arkupe perimetral osoaren tratamendu babeslea.
- **Babestutako jatorrizko elementuak:** lur harrotuzko pista historikoa, bolak babesteko harrizko horma-hobia, perimetroyko hesia eta zoruko egurrezko oholak finkatu eta eskuz zaharberritzea.
- **Saneamendu estetiko eta funtzionala:** kableatuak, koadro elektrikoak eta luminariak kentzea eta berrantolatzea; PVCzko antzinako erretenen orde, leundutako altzairu herdoilgaitzezko xafrazko sistema berriak jartzea; eta argiztapen eraginkorra instalatzea.

II. fasea · Arabako Bolaren Interpretazio Zentroa (2026)



2026an, Arabako Boloa Interpretatzeko eta Jokoa Sustatzeko Zentro berrian espazioaren eraldaketa burutu zen, zorroztasun historikoa eta esperientzia didaktiko eta turistiko interaktiboa uztartuz:

- **Erakusketa-proiektua eta panelak:** Euskal Herriko bolo-jokoaren jatorriari, bilakaera sozialari eta ohiturei buruzko kontakizun kulturala diseinatzea, artxiboko irudiekin eta Zalduekoko eskualde-modalitateak eta jokoaren arau espezifikoak zehazten dituzten informazio-panel modernoekin.
- **Ikus-entzunezko edukia:** bideo dinamiko elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz) eta multimedia-eduki osagarriak ekoiztea, erakusketan integratutako QR kodeen bidez edozein bisitarik erabiltzeko modukoak.
- **Jokoaren sustapena eta logistika:** arauzko bola-joko oso bat eta gako bidezko irekiera duen segurtasun-armairu bat hornitzea, materiala ordenatuta, babestuta eta erabat erabilgarri egon dadin jokia zuzenean pistan egin nahi duenarentzat.



III. fasea · Turismo Digitaleko Informazio Gunea (2026)



Helmuga digitalizatzeko eta tokiko turismo-lehiakortasuna handitzeko estrategiaren funtsezko pieza gisa, totem digital interaktibo bat instalatu da Interpretazio Zentroaren inguruan, kanpoaldeetarako berariaz diseinaturik, irisgarria eta baldintza klimatologiko kaltegarriekiko erresistenteak diren materialekin fabrikaturik.

Terminalak modu autonomoan funtzionatzen du eguneko 24 orduetan, euskaraz eta gaztelaniaz, eta gida oso bat eskaintzen du, honako hauei buruzko ilustrazioekin, testuekin eta ikus-entzunezko baliabideekin:

- Zalduondoko historia eta ondarea: tokiko inauteriak, museoa, eliza eta inguruko ingurune naturalak;
- Ibilbide aktiboak, hala nola mendi-zidorrak, bizikleta-ibilbideak, Donejakue Bidean eta Inaziotar Bidean zehar ibilitakoak;
- Bola-jokoaren tradizioa eta historia Araban eta eskualdean, eta Arabako Lautadako Kuadrilla osoko kultura-eskaintza eta turismo-zerbitzuen eskaintza denbora errealean.

IV. fasea · Kanpoko urbanizazioa, drainatzeak eta azpiegiturak (2026)



Espazioaren hiri-integrazioa sendotzeko, 2026ko ekainean amaitu dira kanpo-saneamenduko azpiegiturak urbanizatzeko eta hobetzeko obrak. Esku-hartzeak hiru eremu bereizi hartu zituen:

- **Mendebaldeko fatxada (sarrera nagusia duen plaza):** eraikinera sartzeko plaza txiki bat egin da. Elizaren aurrez aurre dagoen espazio bat da, fatxadatik gertu aparkatzen duten ibilgailuek okupatzen dutena. Luzetarako espaloi bat sortzen da, hiru metrokoa, eraikinaren altxaera eta iparraldeko lorategirako sarbidea biltzen dituen. Banku jarraitu bat instalatu da, eta funtzionaltasuna izateaz gain, babes-elementu bat da, Korta espazioa haurrek erabiltzen baitute.
-
- **Hegoaldea (bolatokiaren fatxada):** esku-hartze bat egin da bolatokiaren fatxadari itxura hobe emateko. Kontua da bolatokiaren aurrealde osoan espaloi bat sortzea, dauden zutabeen oinarriak hobeto babesteko eta sarbide hobe izateko.
-
- **Iparraldea (atzeko lorategia eta saneamendua):** Berdegunea hobetzeko egokitzapen-lanak egin dira. Saneamendu-obrak egin dira. Belarrezko lurzorua egonkortu egin da, lurraren iragazkortasuna galdu gabe; iparraldeko fatxadarekin muga egiten duen ura biltzeko kanala berritu eta hobetu egin da, eta eraikin osoari perimetroko drainadura gehitu zaio.



Ondare bizia Zalduondoren etorkizunerako

Esku-hartze horiek amaituta, Zalduondoko Udalak bere ondarearen harribitxi bat zaintzeaz eta balioesteaz gain, Arabako landa-helmuga irisgarri, digital eta iraunkorren abangoardian kokatzen da, eskualde osorako itzulera sozial, kultural eta ekonomiko zuzena bermatuz eta Donejakue bideko erakarpen turistikoko polo berri bat sendotuz.

Europar Batasunak finantzatutako proiektua – NextGenerationEU

*Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
Lankidetzeta-hitzarmena Eusko Jauriaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin*